

'Xuxen' zuzentzailea hobetu egin da

Informatika Fakultateko IxA taldeak bigarren bertsioa sortu du eta Interneten denen eskura jarri

FELIX IBARGUTXI/DV. DONOSTIA

Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IxA taldeak *Xuxen* zuzentzaile ortografikoaren bigarren bertsioa aurkeztu zuen atzo. 1994an jaiotzen *Xuxen*, eta hau da, gaur egun ere, euskararako zuzentzaile ortografiko bakarra. EHUko irakasleak garatutako bertsio berria Office 97 paketearen integratzen da eta, horrela, Word, Power Point eta Excel programetan ibiliko da batere eragozpenik gabe.

Atzo aurkeztutako *Xuxen II* zuzentzailearen lehenengo bertsioak 3.500 erabiltzaile baino gehiago ditu jadanik. EHU eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren arteko lankidetzari esker azken hilabeteetan *Euskadi net* webgunearen bidez posible izan da programa dohan jasotzea. Eusko Jaurlaritzako webguneak 3.144 eskaera jaso ditu, gehienbat enpresetatik, elkartetik edota erakundetatik. Orain arte, Administrazioa bera izan da zuzentzailearen erabiltzaile handiena.

Bigarren bertsio hau askoz azkarragoa, potente eta aberatsagoa da lehenbizikoa baino. *Xuxen* 1994, urtean sortu zen Informatika Fakultateko irakasle eta ikeritzaile talde bati esker, Lengoaia eta Sistema Informatikoak sailko kideak, hain zuzen ere. Handik aurrera, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Euskadi-Akitania lankidetzaren programaren diru laguntzari esker, IxA taldeak garatu du bigarren bertsioa Informatika Fakultatean, UZEI eta Hizkia enpresarekin lankidetzan.

IxA taldekideek hobetu egin dute euskararako lehenengo zuzentzaile ortografikoa izan zena eta Interneten jarri dute, Jaurlaritzaren weban dohan nahi duen personak hartu eta erabili izateko (http://www.euskadi.net/euskara_hizt/indice.htm). Bestalde, bi urtetik bi urtera bertsio berriak ingo dira.

Atzo aurkeztutako bertsioak,

Euskaltzaindiak ezarri berri dituen azken araudiak errespetatzen ditu eta hiztegi aberatsago bat dauka. Ezagutzen eta zuzentzen ditu 73.000 hitz, eta baita hitz bakoitzaren deklinabide osoa ere.

Xuxen II ez da bakarrik zuzentzaile ortografikoa, analizatzaile morfologikoa ere badauka barruan, beraz, askoz konplexu eta aberatsua. Ingelesez edo gaztelaraz dauden zuzentzaile informatikoak hitz zerrenda luzeak besterik ez dira. *Xuxen*, aldiz, gauza da erro batetik deklinatutako edozein forma ulertzeko edo zuzentzeko.

EHUko irakasleok garatutako bertsio berria Office 97 paketearen integratzen da eta, horrela, Word, Power Point eta Excel programetan ibiliko da batere eragozpenik gabe. Funtzionamenduaren aldetik beste hizkuntzetako testuen zuzenketa ortografikoa bezala erabiltzen da, aldaketa txiki baina garrantzitsu batekin: erabiltzailearen hiztegiaren norberak onartu nahi dituen sarrerak gehitutakoa sarrera horien flexioak ere (deklinabidea, batez ere) onartuko dira.

Bertsio berria PC-Windows motako ordenadoreetan baino ez dabil. *Xuxen*ek egiten duen tratamendua nahikoa konplexua da eta, ondorioz, kalkulu eta memoria dezente erabiltzen du.

Zuzentzaileak ondo funtzionatu badu Pentium prozesadorea eta 32 MB-ko memoria behar ditu gutxienez.



Agustin Elizegi, Josune Ariztondo, Miriam Urkia, Iñaki Alegria eta Iñaki Goirizelaia.

Teknologia berrien garrantzia

Xuxen-en helburua euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak detektatu eta zuzentzea da, ahalik eta modu eroso zein eraginkorrenean. Programak ez du errore sintaktiko edo semantikorik detektatzen eta, euskara batuaren erabilpena bultzatzen duenez (Euskaltzaindiaren azken erabakiak barne), ez ditu ontzat ematen forma dialektalak, nahiz eta batzuk ezagutu.

Atzoko aurkezpenean Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako sailburuordeak esan zuenez, «Euskara Biziberritzeko Planaren barruan kokatzen dugu zuzentzaile ortografiko hau, teknologia berriak garrantzi handikoak jotzen baitugu plan horretan. Teknologia berriek bizkarra ematen dion hizkuntza nekez iraungo baitu bizirik».

Ariztondoren iritziz, «ezinbestekoa» zen zuzentzailea Interneteko sarean jartzea.

Eusko Jaurlaritzako Informatika eta Telekomunikazioko zuzendaria den Agustin Elizegi ere azaldu zuen aurkezpenera. Adierazi zuenez, Internetetik zuzentzailea jaitsi dutenek inkesta bati erantzun behar izan diote eta honako ondorioak atera dira: erabiltzaileen %39,8 gipuzkoarrak dira; %31,3 bizkaitarrak; %14,8 arabarrak; %5,8 nafarrak; %0,9 Iparraldekoak; eta gainontzekoak, beste zenbait tokitakoak.

IxA taldearen izenean, Iñaki Alegria azaldu zuen atzo, eta EHUren ordezkari gisa Iñaki Goirizelaia errektoreordea. UZEIko Miriam Urkia ere agertu zuen aurkezpenera.

Atxaga: «'Un final para Nora'-k ametsaren sintaxia dauka»

F. I./DV. DONOSTIA

«Lertxundiren *Un final para Nora* eleberririk ametsaren sintaxia dauka. Ez dut esaten amets baten kontaketa denik, baina horko denbora-jokoa amets batena bezalako da. Niri *Manuscrito hallado en Zaragoza* gogorarazi dit; ez dakizu noiz den denbora historikoa eta noiz gauden fantasma baten aurrean», esan zuen atzo Bernardo Atxagak Anjel Lertxundiren eleberririk horri buruz antolatutako hitzaldian.

Ekitaldi hau lehenengo asteko Liburu Azokaren barruan egitekoa zen, baina hizlarion agendagorabehera batzuk zirela-eta atzeratu egin zen. Liburu Azokaren antolatzaileen izenean Asier Muniategik egin zuen hizlariaren aurkezpena.

«Amets bat bezala dihoa narrazioa -jarraitu zuen Atxagak- eta, amesgaiztoetan gertatu ohi denez, errepikapenak daude».

Asteasuko idazleak gogorarazi zuen, bestalde, noiz ezagutu zuen Anjel Lertxundi: «Orain dela 27 urte ikusi nuen lehenengo aldiz. Bilbon izan zen, Deustuko unibertsitateko jardunaldi batzuetan. Aresti, Landart eta beste asko ere

orduan ezagutu nituen. Ni hasi berria nintzen, eta Anduk Ajea du Urturik izango zuen argitaratuta. Euskarazko literaturan ari ginok taldeska bat ginen. Gure nahia, berriz, amets baten barruan kokatzen genuen. 27 urte geroago, eta *Un final para Nora* hau ikusita, esan daiteke idazlearen amets hura gauzatu egin dela. Euskal literaturaren proiektu hura nahiko sendotasunez burutu da gainera».

Atxagaren balantze gisako horri honela erantzun zion Lertxundi: «Orain 27 urte, idazleok zabuzabuka genbiltzan literatura eta hizkuntzaren normalizazio ahaleginen artean. Bi gauza horiek elkarri oztupo egiten diote ordea. Harrezkeroko urteotan, aldiz, ongi bereizi dira literaturaren bidea eta hizkuntzaren normalizazioarena. Eta horixe izan da, beharbada, euskal kulturak izan duen konkistarik handienetakoa».


Aurten gaztelaniaz publikatu dioten eleberrira pasaz, honela hasi zuen Lertxundi: «Liburua egiten dugunean, beste denbora berri bat sortzen dugu; eta irakurleek ere denbora berri bat sortzen dute. Zertarako eskaini ordu

■ **Lertxundi:**
«Liburu batzuek markatu egiten gaituzte»

horiek? Atxagak esaten duen bezala, farfaila hauspotzeko? Ez, izan dadila denbora hori zuzena, justua, entretenitua, jendea aspertuko ez duena».

«Irakurlea galdu egiten da liburuan -jarraitu zuen oriotarrak-, eta gero zerbait gertatzen da bere buruan. Liburu batzuek markatu egiten gaituzte eta horiek dira inportanteak».

Kontatu zuen, halaber, liburuaren idazketari ekin aurretik, konjeturak edo asmabideak -hitz hau Juan Garziak sortua da- ibiltzen dituela buruan. *Un final para Nora* idazteko abiapuntua, adibidez, Italo Calvinoren ipuin bateko bi lerroko pasadizo labur bat izan omen zen. Italiar idazleak aipatzen zuen kalesa baten barruan Iparramerikan barrena zebiltzan aita-alaba batzuen kasua. Hura irakurtzean, asmabideei ekin zizkion Lertxundi.



Atxaga Lertxundirekin, atzoko hitzaldia hasi baino lehenago.

LUSA